

AIARALDEA *hemen*



PEPE GARTZIA:
“Nik jendearekin konektatu nahi dut, ez dut hitzen hieroglifikoetan erori nahi” 14 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
Zer egin, indarkeria matxistaren lekuko, eragile edo eraso jasan duena bazara?



Zaintza eskubidea kolektiboa izan dadin



Kristina Turudic. Bulego-zuzendaria, Donostia

Zure erretirorako aurreztu? Ondo azaltzen badizute soilik erabakiko duzu hobeto.

EUSKADIKO PENTSIOAK BANAKAKO BGAEA
BIZIARO AURREIKUSPEN-PLANAK

Aurreztu nahi duzu etorkizunerako? Pentsatu duzu nola? Oraindik oso gaztea zarela uste duzu? Zure aurrezkiak edonoiz eskuratzeko aukera izan nahi zenuke? Bazenekien etorkizunerako aurrezteak abantaila fiskalak* dituela? Eta aurrezteko modua zurekin eboluzionatuz joan daitekeela? Utz iezaguzu ondo azaltzen. **Izan ere, ondo azaltzen badizute soilik erabakiko duzu hobeto.**

Azaldu. Ulertu. Erabaki.

* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiek abantaila fiskalak dituzte. EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu Paritaidearentzako funtsezko datuen agiria gure bulegoetan edo <https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkiak/planak/aurreikuspen-planak> helbidean.



Bada beste modu bat



- Doako etxez etxeko zerbitzua
- Egunero lza okindegiko ogia

GABONETAKO 0km SASKIAK

Neurrira egindako tokiko barazkiez eta frutez osatutako saskiak. Eskatu info+ konpromisorik gabe!



945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · @frutadenda_selene



AIORA SEDANO · GABRIEL OCINA
IRATI AGIRREAZKUENAGA

Mikel Ayllonek idatzi eta zuzendutako gerra bat
Musika: Igor Arzuaga

HAU EZ DA GERRA BAT

ABENDUAK 2, LARUNBATA
20:00ETAN
AMURRIO ANTZOKIAN

Eskuratu zure sarrera!



Azaroaren 30ean Aiaraldea gelditzeko deia



Agerraldia egin zuten Urduñako Gernika Plazan grebako aldarri eta deialdi nagusiak zabaltzeko. **Aimar Gutierrez Bidarte**

Agerraldia egin dute Aiaraldeko Greba Batzordeak eta Mugimendu Feministak Urduñako Gernika plazan. Herritar orori luzatu diote azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorre batzeko deia. Mobilizazio nagusien hitzorduak zabaldu dituzte, besteak beste.



Testua eta argazkiak
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

"Aiaraldeko kaleak hartzeko" aldarri ozena zabaldu zuten igandean Aiaraldeko Greba Batzordeak eta Mugimendu Feministak Urduñako Gernika plazan egindako agerraldian. Zaintza sektoreko langileen, eskualdeko enpresa batzordeen eta eragile sozialen ordezkariak zabalak babestu zuten deialdia.

"Zaintza krisiaren aurrean, zaintza eskubide kolektiboaren alde" azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorre batzeko deia luzatu zieten Aiaraldeko bizilagunei, greba

deialdiak "herritar oro interpelatzen duela" azpimarratu.

Aiaraldekak pairatzen duen zaintza sistema desorekatuaren ondorioetan jarri zuten azpimarra: "zaintza zerbitzuen pribatizazio prozesuaren ondorioz ez dago zaintza baliabide nahikorik eta zaintzaileen egoera prekarioak ere gurtzatzen du gure eskualdea".

Orozkoko Madres Mercedarias egoitzak duela gutxira arte bizi izan duen ziurgabetasun egoera, zahar-egoitza pribatu eta beharginen lan-hitzarmen gabezia edota etxez etxeko zaintza langile egoiliarren "miseria" egoera jarri zituzten, besteak beste,

"zaintza krisi" horrek Aiaraldean duen eraginaren adibide.

Hitzordu nagusiak

Azaroaren 30eko deialdiko zita nagusiak zabaltzeko baliatu zuten igandean Urduñan burututako agerraldia. Egun horretan 5:00etan abiatuko dituzte lehenengo piketeak Amurrión eta Laudion. Horretarako, Telefonikan eta Latio-rroko aparkalekuan jarri dituzte, hurrenez hurren, bertaratzeko hitzorduak.

Industriagune eta enpresa nagusietan pikete informatiboak egin ostean, goizeko lehenengo mobilizazioak egingo dituzte hainbat herritan. Hain zuzen ere, Amurrión,

Honezkero Aiaraldeko hogeita hamar enpresa batzordek baino gehiagok babestu dute greba

Urduñan eta Laudion aterako dira kalera, 11:45ean. Mobilizazio hauekin greba deialdira batzeko zailtasunak dituzten zaintza sektoreko langileei eman nahi diete ikusgarritasuna, greba feministako deitzaileek azaldu dutenez.

Azkenik, eskualdeko manifestazioarekin bukatuko dute eguna. Laudion izango da eguneko mobilizazio nagusia, eta Herriko plazatik abiatuko da 18:00etan.

Greba deialdira batu diren eskualdeko enpresa batzordeen zerrenda ere egin zuten publiko, datozen egunetan zerrenda luzeagoa izango dela argituta: Artiach, Amurrioko Udala, BM Amurrión-Laudio,

erreportajea

Laudioko Udala, Tubos Reunidos, Maderas de Llodio, Jez, Envases, Amurrio Ferrocarril, Tubacex, Aiala Vidrio, Vidrala, Guardian, Glavista, Inauxa, Aliaxis, Aresketa Ikastola, Laudio ikastola, Lamuzako Guraso Elkartea, Madres Mercedarias, Aiarako Kuadrilla, Orozkoko Udala, Laudioko Euskaltegia, SAD urduña, Urduñako Arkupe erresidentzia munizipala, Amurrioko Bañueta kiroldegia, Aiaraldeko Jantokiak (eskola publikoetako zerbitzua), Enviser (Laudioko garbikuntza), Garnica (Tubacex garbiketa) eta Megatech (LABeko atala).

Grebaren oinarriak

Duela urtebete Euskal Herriko Mugimendu Feministak abian jarritako "Denon bizitzak erdigunera" dinamika jarri zituen Greba Feminista Orokorrerako zimenduak. Hilabete luzeko lanaren emaitza da greba deialdia, eta azken ur-

teetako martxoaren 8ko greba feministetan eta 2020ko greba orokorrean du ernamuina.

Maila lokal zein nazionalen burututako asanbladen bidez, mugimendu feministak Greba Feminista Orokorraren oinarriak eta nondik norakoak definitu ditu azken asteetan. Euskal Herriko gehiengo sindikala osatzen duten ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE, ETXALDE eta CGT sindikatuek urriaren 10ean erregistratu zuten ofizialki azaroaren 30eko greba deialdia. Hego Euskal Herriko langile guztiak daude grebara deituak.

Grebarako eskubidea

Hain zuzen ere grebarako eskubidea herritar ororena dela behin eta berriz azpimarratu dute gurean Aiaraldeko Greba Batzordeak eta Mugimendu Feministak, hots, ez dela zertan sindikatu bateko afiliatua izan greba deialdian parte-hartze-



erreportajea

Greba Batzordeko kideak, ordea, kontziente dira pertsona orok ez dituela greba egiteko erraztasun berdinak; "zaintza sektoreko langileen artean bereziki". Horregatik, telefono zenbakia (645 96 59 20) eta helbide elektronikoa (aiaraldekogrebatzordea@gmail.com) jarri dituzte herritarren eskura; greba deialdiaren inuruko zalantzak edota arazoak bideratzeko asmoarekin.

Ez dute orain arteko prozesuaren potentzialitatea azaroaren 30era mugatu nahi, eta grebaz harago ere "zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatzeko" nahia eta beharra adierazi dute

Halaber ohiko produkzio grebaz haratago zaintza eta kontsumo greba ere badela gogorarazi dute deialdiaren deitzaile nagusiek. Aiaraldeko Greba Batzordeak zabaldu dutako grebaren argibideetan zaintza grebaren garrantzian egin du azpimarra. Zentzu horretan, "gizonek ardura berezia hartu beharko dutela" nabarmendu du. Gizonek lana "piketeen lehen lerroan egotea baino, zaintzaren ardura haien gain hartzea" izango dela adierazi dute. Zaintzari begira, gainera, zaintza guztiak atonduko dituzte azaroaren 30eko greban Aiaraldeko Greba Batzordeak zabaldu dutako grebaren argibideetan zaintza grebaren garrantzian egin du azpimarra. Zentzu horretan, "gizonek ardura berezia hartu beharko dutela" nabarmendu du. Gizonek lana "piketeen lehen lerroan egotea baino, zaintzaren ardura haien gain hartzea" izango dela adierazi dute. Zaintzari begira, gainera, zaintza guztiak atonduko dituzte azaroaren 30eko greban Aiaraldeko Greba Batzordeak zabaldu dutako grebaren argibideetan zaintza grebaren garrantzian egin du azpimarra.

Zaintzaren erradiografia

Zaintza sektorearen egoera sakonki aztertu dute gre-



ba deialdiaren atarian. Hain zuzen ere lan baldintza prekarioek eta zaintza beharrei erantzuteko baliabide falta identifikatu dituzte sektoreak bizi duen krisiaren erantzule.

Datuen arabera, 163.000 emakume daude Hego Euskarri Herrian etxeko lanetara emanak. Gainera, soldata minimoaren azpitik kokatzen da zaintza langileen batz besteko ordainsaria. EAEn Gizarte Segurantzian altan emandako langileen %37,7 etorkinak dira eta %30 egoera irregularrean dago. Hori dela eta, erroldatze-

ko eskubidearen bermatzea da greba deialdiko aldarri nagusietako bat, pertsona migra-tuen zaurgarritasuna borrokatzeko.

"Privatizazio prozesu basatiak" zaintza beharrei lotutako baliabideak nabarmen mugatu dituela azpimarratu dute ere. EAeko adinekoen egoitzen %9 da bakarrik titulartasun publikokoa. Dependentsia maila altuko pertsonen kasuan, gainera, hiru mila euro baino gehiago ordaindu beharra dago hilabeteen logela bategatik. Aiaraldeko erresidentzia

publikoetan itxaron zerrenda dago, hau da; ez dago plaza publiko nahikorik.

Egoera horren aurrean Euskarri Herriko Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioaren beharra aldarrikatu dute eragile feministek, eta hori defendatuko dute azaroaren 30eko greba deialdian.

Kaleak astintzeko deia

Astebete geratzen da Greba Orokor Feministarako eta Aiaraldeko kaleak astintzeko deia zabaldu dute Greba Batzordeak eta Mugimendu Feministak:

"Hurrengo egunetan, azaroaren 30era arte dauden asanblada, propaganda banaketa edo bestelako ekimenetan parte-hartzeko deia egiten dugu".

Baina ez dute orain arteko "prozesuaren potentzialtasuna" azaroaren 30era mugatu nahi, eta grebaz harago ere "zaintzen egungo antolamendu soziala eraldatzeko" nahia eta beharra adierazi dute: "Azaroaren 30etik aurrera ere, zaintza lanak demokratizatzeraren aldean urratsak ematen jarraitu behar dugu, herri akordio zabal bidez".

erreportajea



Aiaraldea
 TikTok-en

BIDEO BERRIAK
 ASTERO IKUSI ETA
 HARPIDETU!

WWW.TIKTOK.COM/
 @AIARALDEA

WWW.AIARALDEA.EUS

**EUSKARAREN
 EGUNA
 AIARALDEAN**

Abenduak 3, igandea
ARTZINIEGA
 mendi martxa
 bazkaria
 azoka
 ekitaldia
 kontzertuak
 eta askoz
 gehiago!

* AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA.

EUSKARAREN EGUNA AIARALDEAN



**Txerra
Molinuevo Laña**

AMURRIOKO ALKATEA

Euskara gure komunikabidea izateaz gain, gure historiarekin eta tradizioekin lotura bizia ere bada, baita Amurrioko identitatean eta gizarte-ehunean funtsezko elementua ere. Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzean, gure udalerrian dauden kultura adierazpenak ospatzen dituen ingurune inklusiboa sustatzen dugu.



**Pruden
Otegi Etxebarria**

AIARAKO ALKATEA

Aiaran ilusioz begiratzten diogu Euskararen Egunari. Euskara maite dugu baina ezer gutxi da hori euskaraz bizi ahal izatetik urrun bagaude oraindik, are urrunago euskara normalizatzeko urratsek trabak aurkitzen badituzte. Urrats berriak egiten jarraituko dugu, Euskal Herri euskaldun bat dagoela plazaratzeko. Gora euskara!



**Encina
Castresana Astarloa**

AIARAKO KUADRILLAKO PRESIDENTEA

Abenduaren 3a egun ezin egokiagoa izan daiteke Aiaraldeko herritarrok gure eguneroko bizimoduan euskarari eskaintzen diogun tokiaz gogoeta egiteko, eta bakoitzaren arduetatik abiatuta, denon arteko elkarlanean, gure hizkuntza biziberritzen segitzeko asmoa sendotzeko. Horretara gonbidatzen zaituztet.





**Miren
Lopez Torres**

ARTZINIEGAKO EUSKARA ZINEGOTZIA

Irakasle gisa beti esaten dut euskara gure nortasunaren parte dela. Gure hizkuntza da, gure historia, gure kultura... Izateari uztea nahi izan bazuten ere, ez genien utzi. Gaur egun erronka berriei aurre egin behar diegu eta Artziniega prest dago. Abenduaren 3an Artziniega euskaraz beteko da!



**Ainize
Gastaka Martinez**

LAUDIOKO ALKATEA

Euskarak bulkada berria behar du erabilpena areagotzea ardatz izan behar duena. Horretarako, dituen arnaguneak indartu eta berriak sortzeari ekin behar diogu. Euskararen herrian bizitzeko hautuak bere erabilpena bizitza esparru guztietan bermatzea eskatzen digu. Ekin diezaiogun erronkari!



**Aingeru
Olaguenaga Iza**

OROZKOKO EUSKARA, HEZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO ZINEGOTZIA

Euskaldunok gure ondorengoei kalkulatu ezin dan jaraunsletza apurtezin bat lagatzen diegu. Janiza izan digutenek, lurperaturik ekosi nahi izan daurie gure hizkuntza, eta honek batera geure herria. Horregatik, segi daigun gure hizkuntz maiteari arnasa emoten, euskaldunoi libre egiten gaituen giltza Euskerea dalako!



**Txutxi
Ariznabarreta Zubero**

ARRANKUDIAGA-ZOLLIKO ALKATEA

Euskararen aurkako oldarraldi judizialari egundoko erantzuna eman genion Bilboko kaleetan eta erasoaren tamainaren aurrean, euskarafobia olatuari erantzun ez ezik, euskararen biziberritzeak dituen erronkei erantzuteko urrats berriak egin behar ditugu inoiz baino kementsuago, mendeetan zehar egin izan dugun moduan.



**Josu
Arbaiza Corada**

OKONDOKO EUSKARA ZINEGOTZIA

Duela urte batzuetatik hona, Euskararen Nazioarteko Eguna oso garrantzi berezia hartu du Okondoko euskalduntzean aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa berresteko. Euskarari esker, harro partekatu dezakegu gure euskal nortasuna. Hori dela eta, euskara bultzatzen jarraitzen dugu urteko 365 egunetan!



**Iker
Santocildes Perez**

URDUÑAKO ALKATEA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu berriro. Ez ditzala haizeak euskal hitzak eramane, erabil ditzagun erakutsiz haien xarma. Gure hizkuntza zaintzea, mimatzea eta hitz egitea gure konpromisoa da. Urduñan euskararen eguna ospatzeko eta euskaraz aritzeko hamaika ekintza ditugu, animatu eta ospa dezagun denok

herriz herri

Laudio

Miloi bateko saria banatu du El Crucero loteria administrazioak



Pozez jaso dute albistea establezimenduko langileek. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Euro Millones zozketako milioi bat euroko saria egokitu zaio Laudioko El Crucero loteria administrazioko bezero bati. Ostiralean bertan egin zen zozketa, eta establezimenduko langileek pozez

jaso dute albistea. Ez da sari potolo bat banatzen duten lehenengo aldia; 2022ko ekainean ia lau milioi banatu zituzten Espainiako Loteriako lehenengo saria bertan saldu ostean. "Laudio zortekajota dagoela" aitortu diote administrazioko arduradunek Aiaraldea Komunikabideari.

Gabonetako ARGIAK PIZTEA

ABENDUAK 1, OSTIRALA
Juan de Urrutia plazan

18:00
DISKOFESTA
Dantzatzeko Prest taldearekin

19:00
GABONETAKO ARGIAK PIZTEA

19:15
TXOKOLATADA SOLIDARIOA
1€ (Txokolatea eta erroskilla)

Euria eginez gero, haurrentzako ikuskizuna San Antonera eramango da.

Izan AMURRIO BIDEAN

AMURRIO BIDEAN GABONETAKO ARGIAK PIZTEA

EL MUNDU PIAULANITZA ESKOLAN VASCO

Amurrio

Nerbioiko ur-jauzian oreka bila



Orekariak Nerbioiko ur-jauzian. Berria.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Bolo-bolo ibili dira asteburuan Nerbioiko ur-jauzi ingurutik jasotako irudiak. Delikako arrolaren alde batetik bestera bederatzehun metroko soka luzatu eta honen gainean orekan aritu dira.

Oreka Tolosa kirol taldeko kideak dira balentiraren atzean egon direnak. Slacklinean edota honen muturreko bertsio den highlinean aritzen dira klub gipuzkoarreko kideak. Hain zuzen ere MendiFilm nazioarteko medni eta abentura zinema jaialdirako dokumentala grabatzen aritu dira Daniel Cascales zinemagilearekin batera. Aiaraldea Komunikabidea Daniel Cascalesekin jarri da harremanetan grabaketaren nondik

norakoak ezagutzeko. Mario Hidalgo Oreka Tolosa taldeko kidearena izan zen Nerbioiko ur-jauzia alderik alde soka gainean gurtzatzearen ideia. Hildalgok aspalditik zituen azpiegitura montatzeko beharrezko baimenak, eta inori ezer esan aurretik Cascalesenajo zuen, proiektua elkarlanean garatzeko.

"Martxoan dossier bat osatu genuen, baita proiektuaren teaser bat", azaldu du zienmagileak. "Material guztia bildu eta MendiFilm jaialdira bidali genuen. Udan jakinarazi ziguten Mendi Film Bizkaia Ternua IV. beka eskuratu genuela". Bekak eskaintzen duen dirulaguntzarekin grabaketari ekin zioten Hildalgok eta Cascalesek.

Prestakuntza hilabete luzeak izan dira. Azkenean iragan aza-

roaren 13an hasi ziren highlinea montatzeari. "Astebete igarodugu Delika inguruan. Ohikoan baino konplexuagoa izan da highline honen muntaketa, lau egun behar izan ditugu azpiegitura guztia prestatzeko". Behin guztia probatuta asteburuan hasi ziren Hidalgo eta Oreka Tolosako gainerako kideak soka gaineko oreka neurtzen.

2024an estreinaldia

Bizitako esperientziarekin eta grabatutako irudiekin oso pozik bukatu du Daniel Cascalesek: "Orain lan eskarga dut aurretik, irudi guztiak montatzeko, baina eskertu egiten dut lan hori, oso gogoko dut". Dokuemntalak highlinea prestatzeko prozesu osoa erakutsi nahi du, eta 2024ko Mendi Film jaialdian estreinatuko dute.

Dastatu betiko esnearen zaporea



EUSKAL HERRIA
esnea

egin eskaera www.ekonomatua.eus-en



Aiaraldea

Elkarbizitzari gorazarre eta zurrumurru arrazisten aurka egiteko elkartu dira dozenaka bizilagun



Dozenaka lagunek otordua elkarbanatu zuten, dantza eta kantu artean. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zehar-Errefuxiatuekin elkarrekin Bizilagunak ekimenaren edizio berri bat ospatu zuen igandean. Xurrumurru eta jarrera arrazistak baztertzeko asmoarekin, jatorri eta kultura desberdinetako auzokideak bazkari baten bueltan elkartzea du helburu egitasmoak.

Artziniegan, Amurrion eta Laudion antolatu zituzten otordua. Janaria ez ezik, kantuak, dantzak eta istorioak ere elkarbanatu zituzten.

Amurrion Juan Urrutia plaza izan zen bizilagunen topaleku, eta bazkaldu aurretik Kirikiño Atsedean Taldeak haurrentzako jolasak gidatu zituen. Bazkalostea, ordea, Saad Ouha musika taldeak girotu zuen.

Artziniegan Toñin Luengas frontoian batuko ziren eta postreak prestatzeko tailerra eskainiko zuten aurrena. Bazkalostean, gainera, haurrentzako jarduerak ere prestatu zituzten.

Azkenik, Laudion, Faktoriaizango zuten topaleku. Lehenik eta behin, elkar ezagutzeko tarte hartu zuten ekimeneko parte-hartzaileek. Bazkaltzera eseri aurretik, munduko kanta, dantza eta jolasak erakutsiko zizkioten haur zein helduek elkarri.

Gasteiz-Amurrio-Laudio autobus zerbitzua indartuko du Arabako Foru Aldundiak




Asteburuetan indartuko dute zerbitzua, besteak beste. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ikasturte berria hasi zenetik, Aiaraldea eta Gasteiz lotzen duen autobus zerbitzuak zenbait gabezi izan ditu eta hainbat bidaiari garraio gabe geratu dira hori dela eta. Arabako Foru Aldundiak iragarri berri du Gasteiz-Amurrio-Laudio 15. lineak autobus bat gehiago izango duela larunbatean, Gasteiz-Laudio arteko eguneko azken zerbitzuan. Zehazki, 22:35ean irtengo da Arabako hiriburutik. Horrez gain, ordu tartejakin batzuetako plazen eskaintza handituko dute, azken asteetan izandako bidaiarien hazkundera egokitzeko.

rrio-Laudio 15. lineak autobus bat gehiago izango duela larunbatean, Gasteiz-Laudio arteko eguneko azken zerbitzuan. Zehazki, 22:35ean irtengo da Arabako hiriburutik. Horrez gain, ordu tartejakin batzuetako plazen eskaintza handituko dute, azken asteetan izandako bidaiarien hazkundera egokitzeko.

#ETXEAN HARTU



Haien auberara zara

945 77 30 52 / acogimiento@araba.eus

P.A.A.F.A.

Arabako Familia Harrerako Laguntza Programa
Programa de Apoyo al Acogimiento Familiar en Álava

araba **álava**
foru aldundia diputación foral

ENKARKI

ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa



Gurekin ere, euskeraz!

babestutako edukia

Bola-jokoak herrian bizi duen susperraldia ikusita, bolalekuaren osoko eraberritze lanari ekin dio Arrankudiaga-Zolloko Udalak, ondare kulturala berreskuratu eta etorkizunera begira jarri, eta bola-jokoa jolas eta denbora-pasa hutsa izatetik kirol-jarduera arautua izatera igarotzeko asmoarekin.

Arrankudiagako bolalekuaren osoko eraberritzea: bultzada sendoa bola-jokoari



Goitik behera eraberrituko du Udalak Arrankudiagako bolatokia. **Arrankudiaga Zolloko Udala**

Bola-jokoa modalitate asko dituen kirol autoktonoa da. Aranzadiren arabera, zelta jatorriko jokoa da eta aurreko mendeko bigarren partean indarra galduz joan zen, eskualde askotan guztiz galtzeraino. Jatorriz, bola-jokorako espresuki egindako erakina da Arrankudiagako bolalekua, erremonte eta muna modalitatekoa, buztinezko zorua duena eta bertan jokatzeko helduleku edo eskuzulo-bola esferikoa eta hamar txirlo (bederatzia handi eta txiki bat) erabiltzen dira. Bola jaurti eta horretarako prestaturik dagoen gune baten jarrita dauden txirloak eraistea da jokorearen helburua. Bizkaiko Hego Uribe, Arratia eta Duran-

galdeko bolalekuak modalitate berekoak dira eta antzekotasun handia dute Arabako Aiaraldekoekin. Nahiz eta hauetan zorua zuzeko izan eta ez izan muna-rik, puntuazio-arauak, bolak eta txirloak berdintsuak dira. Hain zuzen ere, aipatutako eskualde guztietatik bolari ugari etortzen dira Arrankudiagan antolatzen diren tiraldietan parte hartzera, Aiaraldetik batez ere.

Arrankudiagan bola-jokoa garai baten galtzeko bidean egon ondoren, bolazale talde baten etengabeko lan isil eta kementsuari esker, laurogeiko hamarkadatik aurrera berriro indarra hartzen hasi zen. Azken hamarkadotan, bolazaleen belaunaldi

berri bat ari da aurrekoen lekuko hartu eta bola-jokoa herrian sustatzen. Hasiera jaurtialdiak jaietan, gabonetan eta une puntualetan antolatzen baziren ere, gaur egun maiztasun handiz jokatzen da; aurten adibidez, negu osoan zehar burutu da bola txapelketa arrakastatsua.

Bola-jokoa tradizioz gizonezkoen jarduerak izan arren, Arrankudiagan azken urteotan ohikoa izan da emakumeen parte hartzea. Aurtengo neguko txapelketan burutu diren zortzi jardunaldietan emakumezkoen parte-hartzea %25,9koa izan da eta agerian gelditu da bola-jokoa emakumeen artean izaten ari den gorakada nabarmena.

Helduentzako tiraldiekin batera harrera oso ona izaten duten umeentzako tiraldiak antolatzen dira beti, beraz, belaunaldi erreleboa bermatzen ari da.

Baina, bolalekuak egiturazko hainbat arazo zituen eta bola-jokorearen susperraldia eta jokorearen beraren eta eraikinaren balio etno-kulturala ikusita, bolalekuaren osoko eraberritzea egitea erabaki zuen Arrankudiaga-Zolloko Udalak urte honen hasieran. Proiektua herriko bolazaleekin partekatu eta adostuta burutu zen eta ekainean egin zen obraren lizitazioa eta esleipena 123.964,50 euroko aurrekontuarekin. Obrak oso aurrerata daude: teilatua, zuzeko egi-

tura, arotzeria instalazio elektriko eta argiteria guztiz berriak izango dira, alde bateko horma jaitsi egingo da kanpotik ikusi ahal izateko barruko jokoa eta, irisgarritasuna hobetze aldera, bi ate nagusi jarriko dira egungo ate bakarraren ordean. Gabonetarako eraberritze lanak amaitzea da helburua.

Bolalekuaren eraberritzeak jauzi kualitatibo handia ekarriko du bi norabidetan: alde batetik, berreskuratutako ondare kulturala egungo parametroetara egokitu eta etorkizunera begira jartzen da eta, bestetik, jolas eta denbora-pasa hutsa izatetik kirol-jarduera arautua izatera igaroko da bola-jokoa.



Orozko

Aita Menni Fundazioak hartuko du egoitzaren kudeaketa eta langile guztien subrogazioari ekingo dio. Beharginek egungo lan-baldintzak hobetzearen alde borrokan jarraituko dutela adierazi dute.

Madres Mercedarias egoitzako bideragarritasuna bermatuko duen akordioa erdietsi dute



Mobilizazio ziklo bizia gauzatu dute egoitzako langileek itxieraren aurka. Aiaraldea.eus

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Itxiera mehatxuak gainditu ditu Ibarrako Madres Mercedarias egoitzak. LAB eta ESK sindikatuek adierazi dutenez, akordioa erdietsi dute zentroaren bideragarritasuna bermatzeko. Horrela jakinarazi zieten langileen ordezkariari Bizkaiko Foru Aldundiko, Aita Menni erakundeko, EDE Fundazioko eta Madres Mercedarias

kongregazioko ordezkariekin azaroaren 10ean egindako bileran.

Enplegua bermatuta

Urtebete baino gehiago igaro dute Ibarrako egoitzako langileek itxieraren aurka borrokan. Sinatutako akordioaren arabera, Aita Menni Fundazioa arduratuko da zerbitzuaren kudeaketaz, eta langile guztien subrogazioari ekingo dio.

Sindikatuak pozik agertu dira,

Urtebete baino gehiago igaro dute Ibarrako egoitzako langileek itxieraren aurka borrokan

akordioak marrazten duen "agertoki positiboaren" aurrean. "Borroka luze honetan parte hartu duten langile guztiak zoriondu nahi ditugu, baita hain konbentzitutak egon ez direnak ere. Badakigu gure borroka Aldundiaren, Madres Mercedarias kongregazioaren eta, kasu honetan, Aita Menniren arteko negoziazioen erdigunean jarri duela konponbideak enplegua galduko ez zuela bermatzeko beharra", adierazi dute LABek

eta ESK-k. Behin bideragarritasuna bermatuta, lan-baldintzen hobekuntzaren alde borrokan jarraituko dutela azaldu dute langileen ordezkariak. "Urte hauetan guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu publikoak pribatizatzeko egin duen apustuaren ondorioz, gure soldatak eta lan-baldintzak ahalik eta merkeenak izaten saiatu dira", azaldu dute sindikatuek. Egoera hori iraultzeko lana abiatuko dute orain.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik /hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

945 712 822
bertako.eus



elkarrizketa



“Aretako komunitate osoarentzako ekintzak egitera igaro gara”

ARETAKO EMAKUMEAK TALDEA 2019AN SORTU ZEN, ETA HAINBAT EKIMEN ANTOLATU DITU ORDUTIK HONA. EGITARAUA AURKEZTU DUTE AZAROAREN 25AREN TESTUINGURUAN



Testua eta argazkia **Txabi Alvarado Bañares**

Duela urte batzuk sortu zenuten Aretako Emakumeak izeneko taldea. Nola sortu zen batzearen ideia?

Tailer batzuetatik sortu zen, martxoaren 8 baten testuinguruan. Talde handia ginen, eta talde txikiagoa eratu genuen gero, operatiboagoak izateko.

Kultur Etxearen itxieraren testuinguruan sortu zen, espazio honetan ekintzak antolatzearen beharra ikusi genuenean. Tailerrak egin ostean sortu zen zeozer jarraituagoa egitearen ideia, bestelako ekimen eta formazioak antolatuz.

Zer nolako bilakaera izan du taldeak ordutik hona (tardean pandemia bat egon dela kontuan hartuta)?

Lehenengo tailerlean jende asko egon zen eta gero bai egin zela beste bat murriztagoa. Hortik aurrera urteko hilabete batean zenbait jarduera egin dira: dantzak, tertuliak, proiektzioak, afariak...

Taldeko kideontzat pentsatutako ekintzak egiten genituen lehenbizi, baina iaiztik hasi ginen ekintza zabalagoak egiten, hemen antolatu genuen Areta mailako azaroaren 25a, adibidez. Aurten antolatu ditugun gauzak ere gehiago izan dira komunitateari begira, taldea eratzen dugunon begira baino. Zabalduta eta gizarteratu gara. Taldearen barruan

ere egon da sentsibilizazio prozesu bat, izan dugu bilakera bat, eta Aretako gainontzeko biztanleak ere sentsibilizatzeko beharra ikusi dugu gero.

Tailer batzuen erabiltzaile izatetik eragile bat izatera pasa zarete, beraz. Zergatik ikusi zenuten antolatzeko beharra?

Hasi ginen jarduera zehatz bati begira antolatzen, eta gustatu egin zitzaigun sortu zitekeen espazioa eta bertatik sortu zitekeena. Gustuko izan genuen eta interesgarria iruditu zitzaigun egitea. Ez ginen antolatzen hasi Aretan ematen zen egoera zehatz batengatik. Gauzak egiten hasi ginen eta orduan ikusi genuen sortzen zen espazio hori baliagarria suertatu ahal zitzaigula.

Belaunaldi ezberdinetako emakumeak batu zarete taldean. Horrela sortu da edo berariaz sustatu duzue belaunaldi ugari batzea?

Aretan dagoen edozein taldetan topatu dezakezu hamazazpi urteko gazte bat berrogei urteko batekin. Gainera, antolatu genituen lehen hitzaldietan ahalegin berezia egin genuen belaunaldi ezberdinetako jendea batzeko.

Aretan beti egon da eskaintza sozial eta kulturala, eta pandemia iritsi eta Kultur etxea itxi zenetik baina nabaritu da horren falta. Orduan ikusi genuen, espazioa genuela,

eta baita gauzak egiteko gogoia ere. Azaroaren 25eko ekimenak egin ditugunean plaza bete egin da. Azaroaren 25ean ekintzak antolatzen dira eskolatik, eta egun horretan klaseen ostean antolatzen diren tailerrek harrera ona dute.

Faktore guzti horiek ere eragina izan zuten taldearen eraketan. Barne mailako kontuak ekitaldi publikoekin uztartzen ditugu. Jorrazten ditugun gaiak interes publikoak direla uste dute, jendarte osoari eragiten diotelako, ez soilik emakumei. Horregatik, guretzat erabilgarria den bezala, beste edozein pertsonarentzat ere izan daiteke.

Gure helburua ez da izan talde oso jendetsu bat eratzea. Hitzaldi bat antolatu eta hogeit hamar pertsona edo gutxiago batu garenean, adibidez, hori da helburua: bertaratzen den jendearen arteko saretzea ematea gure artean; eta, gero, data konkretuetan jende gehiago batzen bada, hobeto. Taldeari jarraikortasuna ematea zen helburua.

Emakumeren batek taldean parte hartu nahiko balu, zer egin beharko luke?

Ez dugu komunikazio kanalik, Whatsapp taldea baino ez. Azken finean, egunero ikusten dugu elkar (barreak). Areta ez da oso handia, denok ezagutzen dugu elkar eta badakigu gutxi gorabehera nor mugitzen den saltsa bakoitzean. Gauzak hala, emakumeren batek taldean parte hartu nahiko balu, gugana jotzea izango litzateke errazena.

babestutako edukia



UDAZ- KENA

FAKTORIAN



WWW.FAKTORIA.EUS



ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK BARIKUA,
17:00etik 20:30era

ZAPATUETAN,
10:30-14:00etara

UDAZKENEAN FAKTORIA ITXITA EGONGO DA:

Azaroak 30, eguna: greba feminista orokorra!
Abenduak 8, barikua.
Abenduak 25, eguberri eguna.

IDATZI EDO DEITUIGUZU

faktoria@aiaraldea.eus · 688 64 79 42

AZAROA



24, barikua

20:00 · Faktorian

PLAZA EGUNA: ENTSEGU IREKIA/
URUNE
AITZOL IRAOLA
DANTZA & ANTZERKIA & MUSIKA
DOAN

#KULTURA
#SORMENFAKTORIA



25, zapatua

11:00 · Faktorian

**GAZTEENTZAKO
MULTIMEDIA
IKASTAROA:**
NOLA EGIN BIDEO
PODCAST BAT?

#GAZTEGAZTEAK



30, eguna

**GREBA
FEMINISTA
OROKORRA**
FAKTORIA ITXITA

#FEMINISMOA



15, barikua

20:00 · Faktorian

PLAZA EGUNA/
**BIBA ARDOAK
ETA MORAU,**
ARDO AZOKA,
DASTAKETA ETA
KONTZERTUA
DOAN

#MUSIKA



16, zapatua

17:30 · Faktorian

POTX MAGOA

BAZKIDEEK 8€/

EZ-BAZKIDEEK 10€

#HEZKUNTZA
#MAGIA



17, domeka

11:00-14:00 · Faktorian

**EMAKUME
SORTZAILEEN
III. AZOKA**

DOAN

#FEMINISMOA
#SORKUNTZA



23, zapatua

17:30 · Faktorian

**MARI
DOMINGIREN
ETORRERA**

DOAN

#HEZKUNTZA



ABENDUAK 02, zapatua

17:30 · Faktorian

ARTE HARTZE ZIKLOA/

ARTE EMAN FESTA!

SORMEN BEKA ETA EGONALDIETAKO ARTISTEN TOPAKETA JAIA:
DANTZA, PROIEKZIOAK, SOLASALDIK, INPROBISAZIOA...

SARRERA OROKORRA 10€/ BAZKIDEEK 8€/ IKASLE ETA LANGABETUEK 6€

#KULTURA #SORMENFAKTORIA



ABENDUAK 17, domeka

18:00-20:00 · Faktorian

ARTE HARTZE ZIKLOA/

**'EMCUMEAK' + ZIKLO
AMAIERA**

MAHAINGURU ETA PARTE HARTZE DINAMIKAK
SARRERA OROKORRA 5€/ BAZKIDEEK 4€/ IKASLE ETA LANGABETUEK 3€

#KULTURA #SORMENFAKTORIA

ABENDUA



03, domeka

Egun osoan zehar

Artzintegan

**EUSKARAREN
EGUNA**

#EUSKARA



06, eguaztena

**FAKTORIA
ZABALIK EUSKAL
EGUTEGIAREN
ALDE**
(ABENDUAK 8 ITXITA)



**Abenduak 26tik 29ra eta
urtarrilak 2tik 5era**

09:30-13:30 · Faktorian

**FAKTORIAKO
NEGULEKUAK**

IZEN EMATEA: WWW.LABUR.EUS/NEGULEKUAKF2023

#HEZKUNTZA



AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TORIA**

kultura

“Poesia ulertzen ez duela uste duenak ere badauka honekin hunkitzeko gaitasuna”



PEPE GARTZIA BEITIA (Amurrio, 1953) POESIA LIBURUA ARGITARATU BERRI DU. BIZITZAREN GORABHEREI IDATZI DIE POETA AMURRIOARRAK, IRAKURLE GUZTIEKIN KONEKTATZEKO BOKAZIOAREKIN.



Testua eta argazkia **Almar Gutierrez Bidarte**

Bizitza osoa eman duzu poemak idazten, orain zure lehenengo liburua argitaratu duzu.

1985. urtean poema liburuxka bat auto-editatu nuen, Alberto Luengas nire lagun minarekin. Nik neuk idatzi, landu eta maketatu nuen inprentara eramanez. Lan xumea izan zen, lagunaren artean elkarbanatzekoa. Orain argitaletxe baten laguntza izan dut liburu berria plazaratzeko.

Bi liburuen artean ez diot inoiz idazteari utzi. Hain zuzen ere, 1985eko edizioeko poema batzuk ere txertatu ditut argitalpen berrian, garai baten eta bestearen arteko zubi-lanak egiteko.

Zozobrandoda liburu berriaren izenburua. Zein da honen hari eroalea?

Hitzaurrean azaltzen dudana bezala bizitzaren gorabeherak islatu nahi izan ditut liburuan. Hogeita zazpi poema bildu ditut, luzera desberdinekoak.

Zeintzuk dira zure poesiaren ezaugarriak? Liburuan ahalegindu naiz poetak ez direnentzako idazten ere. Baditut beste estilo batzuk, konplexuagoak agian. Poesiaren bidez nik sentitzen ditudan gauzak transmititzea da nire helburua, emozioen trans-

fusioa. Espiritualki biluztea da. Horretarako liburua ulerterraza egin nahi nuen, mundu ororentzat. Hizkerara sinplea erabiltzen saiatzen naiz. Eguneroko gaiak lantzen ditut, eta irakurleak azkar ikusiko du bere burua bertan islatua. Nik ez dut poetentzat idazten. Azken finean hauek emozioak jendeari ulergaitza zaion hizkuntza batean transmititzen dute. Nik jendearekin konektatu nahi dut, ez dut hitzen hieroglifikotatik erori nahi.

Izan ere, poesia ulertzen ez duela uste duenak ere badauka honekin hunkitzeko gaitasuna. Hain zuzen ere alegato horrekin ixten dut liburuak. Irakurleei haien buruekin gogorrak ez izatea eskatzen diet, senitberak izan daitezten eta egunerokoan inguruan dituzten gauzekin hunkitu daitezela.

Zeintzuk dira eguneroko gai horiek?

Animo egoeretan sailkatu ditut gaiak, bizitzaren gorabehera islatzeko. Bada *Desconfinando* deitzen den kapitulu bat, bertan pandemia garaiko kontuak sartu ditut, eta nola sentitzen nintzen azaldu ditut. Askok hori haien errealitatea ere izan zela ikusiko dute. Liburuak baditu gai pertsonalagoak; zendu zen nire emazteari eskaini dizkiot poema batzuk adibidez.

Kapituluka sailkatu ditut poema guztiak. Kapitulu bakoitza gerundio batekin izendatu ditut: Amestuz, ihes eginez... Bakoitzean gai desberdinak lantzen ditut Ihes

eginez kapituloan, estaerako, errefuxiatuen gaia lantzen dut. Kartzelan idatzi nuen poema batekin hasten da liburuak, 1987. Beti gustatu izan zait.

Gai sozialak ere landu dituzu.

Gizakiak egiten dituen basakeriak ere landu ditut poemak bidez. Adibidez, 2022an Melillako hesian gertatutako sarraskiari eskaini diot poema bat. Baita 2017an Siriako errefuxiatuek abiatutako exodo masiboari ere. Irudi horiek guztiak eragina izan zuten nigan, eta sentimendu horiei irteera emateko bidea da poesia.

Poemak idazteaz gain marraztu ere egiten duzu. Korrelaziorik al dago bi diziplinen artean?

Bai noski. Nire koadro asko poesiarekin lotzen ditut, poema asko margolan bihurtuz. Liburuaren azala nire margolan batekin jantzi dut. Hain zuzen ere, 1985eko edizioarako marraztu nuen marrazkiaren koloredun erreproduktzioa da. Autorretratu abstraktu bat da.

Irakurleek non eskuratu dezakete poema liburu hau?

Amurrioko liburu-dendetan dago eskuragarri. Argitaletxe bat arduratzen denez distribuzioaz Elkar eta La Casa del Libro dendetan ere jarriko dute salgai, formatu fisikoan. Internet bidez ere eskuratu daitezke, aipatutako liburu dendetan web orrian edo *Amazon* bidez.

Faktorian kontzertua eskaini zuten Matxek eta Ibil Bedi taldeak iragan azaroaren 18an. Jendetza bertaratu zen musika emanaldiaz goatzera. Artistak eta ikusleak, guztiak asebate zituen emanaldiak.

Matx eta Ibil Bedi, Faktoriako artista kuttunak



Argazkiak **Naia Vallejo Torres**

Jendetza elkartu zen azaroaren 18an Faktorian Matx eta Ibil Bediren kontzertuaz goatzeko. Bi taldeek Faktoriatik abiatutako zirkulua itxi zuten larunbatean, berriro bueltatzeko aukerari atea parez pare zabalduz.

Malen Atxak Faktorian eskaini zuen bere lehenengo kontzertua 2021ean. Egoitz Uriarterekin igo

zen eszenatokira, ordura arte kaleratutako abesti bakan batzuk kantatzera. Geroztik ibilbide emankorra izan du artista audioarrak. Aurten bere lehenengo EPa kaleratu du: *Katarsia*. denbora guzti honetan bidelagun izan dituen Cuatro Bancos taldeko kideekin eskaini zuen emanaldia Faktorian, publikoa asebatez.

Ibil Bedik hartu zuen Matxen lekukoa. Nafarrek 2018an ekin

zioten biderei eta honezkero hiru lan luze plazaratu dituzte, azkena aurten bertan; *Goldea*. Matxek bezala, Ibil Bedik ere lotura estua du Faktoriarekin. 2019an egon ziren lehenengo aldiz, egun Faktoria dena pabiloi huts bat zen garaian. 2021ean, pandemia betean, errepikatu egin zuten. Faktoriako talde kuttunak hirugarren kontzertu borobila eskaini zuten larunbatean, laugarrena egongo dela zin eginda.



Erabili meloia

Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin

kultura

Arrankudiaga-Zollon argazki lehiaketa bidez osatuko dute 2024ko egutegia

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arrankudiaga-Zollok egutegia izango du 2024an eta horretarako herritarren partaidetza sustatzen ari dira herriko guraso elkarte eta Udala. Helburu horrekin antolatu dute tokiko argazki lehiaketaren lehen edizioa, gai hau ardatz hartuta: Familiarekin Arrankudiaga-Zolloko zein txokotara joatea gogoko duzu?

Udaleko, Eskolako, Gizarte Etxeko, Gaztetxe eta Euskara Batzordeko ordezkariak osatuko dute epaimahaia; hama bi argazki aukeratu dituzte eta bakoitza egutegi batekin sarituko dute. Egutegia aben-

duan egongo da salgai. Saridunei azaroaren 27an komunikatu zaie hautatuen artean daukela, posta elektronikoz edo telefonoz. Edonola ere, urtarrilean erakusketa egingo dute lehiaketan parte hartu duten argazki guztiekin.

Arrankudiaga-Zollon bizi, ikasi edo lan egiten duten edo udalerrian jaio diren argazkizale guztiek parte hartu ahal izango dute; eta baita herriarekin lotura zuzena duten pertsonak ere. Udalerriko argazkiak baino ez dira onartuko.

Parte hartzaile bakoitzak originala izan behar den argazki bana aurkeztu ahal izango du. Editatutako argazkirik ez da onartuko.

Peio Rivasek irabazi du Rigako Nazioarteko MagicMania lehiaketa



Alberto Acero plazan jarri dute figura. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Magia sariak pilotzen jarraitzen du Peio Rivasek. Rigan, Letoniako hiriburuan, ospatu zen iragan urriaren 6an Nazioarteko MagicMania-Wonderland magia lehiaketa. Mundu osoko zortzi herrialde desberdinetatik bertaratutako bederatzita mago igo ziren Olympic Voodoo Casinoko agertokira, audioar gaztea tartean.

Hain zuzen ere, Rivas izan zen nazioarteko txapelketaren zazpigarren edizioko irabazlea. Hogei urteko magoak liluratuta utzi zuen ilusionista profesionalak

Beste zortzi magoren aurka neurtu zen Rivas Letonian azken hilabeteetan lantzen arituen karta trukoarekin

osatutako epaimahaia bere karta trukoekin.

Rigako saria azken urteetan pilotutako nazioarteko aitortza luzeen zerrendara batu du Peio Rivasek. Audioarrak 2016an izan zuen lehenengo kontaktua magiarekin, baina azken urteak izan dira bere ibilbidea katapultatu dutenak. Apirilean estreinatu zuen ordu beteko magia ikuskizun luzea, baina aurretik eskuratu zuen Frantziako Magia Sari Nazionala, besteak beste.

Uda ere bizia izan du mago gazteak. Abuztuan bira luzea egin zuen Mexikon barrena, aretoz areto ikuskizunak eskainiz.



**SANTA LUZIA
AZOKA
OROZKO**
ABENDUAK 16,
LARUNBATA

TERREÑA Arrazako Euskadi XV. lehiaketa

Bertoko produktuen azoka HEGOALDE

Artisautza azoka FRONTOIAN

HEGOALDEKO KARPETAN DASTAKETAK

- 10:00 Nekazal-Abeltzaintza azokaren hasiera
- 13:30 Sarien banaketa

Terreña, ogi eta gazta lehiaketaren eta merkatuko postuen apainketaren sari banaketak.

CLÍNICA DENTAL OROZKO



Interesik gabeko finantzaketa

MINIK GABEKO LASER BIDEZKO HORTZ -TRATAMENDUAK

3D DIAGNOSTIKOA

AHO BARNEKO ESKANERRA (CAD-CAM)

Lehendakari Agirre enparantza 8 behea, OROZKO · www.clinicadentalorozko.com

946 61 04 19 · 688 678 604 (Hitzorduak Whatsapp bidez ere ematen ditugu)

babestutako edukia

PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen
% 88,2k emakumeen
aurkako indarkeria fisikoa
edo hitzezkoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa
bere eskuetan utzi.

azaroak

25

Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 ^{24 h}
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



kirola

Ostiralean izan zen inaugurazio ofiziala eta jendetza batu zen museoan. Tokiko futbol ordezkari eta jokalaririk ohiekin batera, bestelako klubena ere egon ziren, Athletic Club barne.

Futbol federatuko mende bat Orduña Hiria Museoan



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aurten mendea bete du futbol federatuak Orduñan. 1923an izena eman zuen CD Orduñes Bizkaiko Federazioan eta, elkarteak desagertu ondoren, CD Orduñak hartu zuen lekukoa 1963an. Ibilbide luze hori islatzeko erakus-

keta egin dute Orduña Hiria Museoan eta ostiralean izan zen inaugurazioa, modu arrakastatsuan, gainera. Horrenbeste jendek erantzun zion deialdiari, ezen zaila izan baitzen bildutako kamisetak, garaikurrak edota argazkiak egun berean ikustea. Josu Llano eta Koldo Badillo museoko kideek azaldu zuten ekimenaren zerga-

tia, eta Uxue Mendibil zinegotziak eta Lander Gonzalez CD Orduñako kirol koordinatzaileak ere hitza hartu zuten. Azkenik, Martin Urrejola Athletic Clubeko ordezkariak kuadroa oparitu zion museoari, zeinean agertzen den Bizkaiko Federazioan dagoen lehenengo aipua Orduñako futbolari buruz.



Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.

Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

kirola

FUTBOLA

Sarai Gandarias atezain aiararra deitu du Euskadiko Selekzioak



Sarai Gandarias Alaves taldearekin. S.G.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Sarai Gandariasek jarraitzen du gora egiten bere kirol ibilbidean. Udan bi astez egin zuen aurrendenboraldia Deportivo Alaveseko talde nagusiarekin eta 17 urte azpiko Euskadiko Selekzioak ere deitu du. Zehazki, Real Sociedad klubaren aurka jokatuako lagunarteko partidarako izan zen eta atezainaren itxaropena da Espainiako Txapelketarako ere hautatuen artean egotea.

Edonola ere, hasi berri den denboraldiko lorpenak ez dira zortearen emaitza izan. Hain zuzen, aurreko denboraldian jauzi nabarmena egin zuen luiaondoarrak eta filialaren atea zaintzeko ardura hartu zuen bere gain, taldeko jokalariek lesioak izan ostean. Gauzak horrela, kadete taldeko atezaina izan arren, Euskal Ligan eman zuen denboraldi erdia. Aurten zuzenean filialean hasi du denboraldia eta pozik dago, bigarren sailkatuak baitira.

MENDIA

Gailurrak eta mendien barrunbeak hizpide Amurrioko Mendi Jardunaldietan



Takomano Espeleologia Taldeak itxiko ditu jardunaldiak, azaroaren 26an. **Mendiko Lagunak**

Testua
Aimar Gutierrez Saez

Urteroko zitari eutsiz, Mendi Jardunaldien edizio berria ospatzen ari dira, eta Mendiko Lagunak Taldeak egitarau oparoa prestatu du. David Palmada *Pelut* eskalatzailak inauguratu zituen jardunaldiak azaroaren 17an. Palmada Ernesto Belenguerrekin 475 metroko sakonerako putzu batean irekitako eskalada bidez mintzatuko da. Munduko hamar putzu sakonenetarik bat da Kantabriako (Espainia) Gran Pozo MTD putzua.

Egitarauaren zatirik handiena, ordea, bigarren astebururako gorde dute Mendiko Lagunak Taldeko kideek. Azaroaren 24tik 26ra hiru egun jarraian izango dira solasaldiak.

Ostiralean Ana Salvador Hueskako (Espainia) *freerider*-ak 6.000split proiektua aurkeztuko du, bideo eta argazkien proiektioen bidez. Ekuador, Bolivia, Peru edota Nepalen 6.000 metroko mendiak igo eta *snowboard* taularekin jaistearen ardatza.

Larunbatean, azaroak 25, luzuzko gonbidatua jasoko du mendi talde amurriarrak. Silvia Vi-

Zortzi urteko epea eman du Europar Batzordeak kautxuzko kirol azpiegiturak ordezkatzeko

dal, 2021ean Piolet d'Or sari entzutetsuarekin saritutako alpinista, izango da Amurrio Antzokian. Vidalek hogeita hamahiru egun igaro zituen inkomunikatuta Patagoniako Cerro Chileno mendian bakarkako eskaladan. Vidalek Sinkronia Magikoa (A3+/6a+) 1.180 metrotako bidea zabaldu zuen bere balentrian, 2020ko otsaila eta martxoan. Jardunaldiak agurtzearen ardurara, aldiz, Takomano espeleologia taldeko kideek izango dute. Igandean, azaroaren 26an, Losa haraneko Suso Iturri Sistemako esplorazioaren nondik norakoak aurkeztuko dituzte.

Esplorazioa Mendiko Lagunak Taldearen bekari esker gauzatu du tokiko espeleologia taldeak. Igandeko proiektioan esplorazio espeleologiko baten prozesu guztia azaldu eta ateratako ondorioak aurkeztuko dituzte.

Hitzaldi eta proiektio guztiak 19:00etan egingo dituzte, Amurrio Antzokian. Takomanoren hitzaldia izango da salbuespena; izan ere, Mendiko Lagunak Taldearen egoitzan egingo dute azken aurkezpena. Sarrera librea izango da antzokiko edota egoitzako edukiera bete arte.

TXOKOLATADA SOLIDARIOA AMURRION

ABENDUAK 1, OSTIRALA
19:15etan Juan de Urrutia plazan

Eskuratu zure Txokolate + Erroskilla tiketa 1€-ren truke

Amurrioko Turismo bulegoan, hurrengo egunetan eta ordutegian: azaroaren 28an, 29an eta 30ean 10:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 19:00ak arte

Bildutako diru guztia Babio Non Stop elkarteari emango zaio.

Izan
AMURRIO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 14an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Unai

Zorionak Unai! Bilatu lan serio bat behingoz!

Eskerrik Asko Apo



Oier

Aupa, Wizo!!! 17 urte!!! Gogoan izan beti pedalei irribarrez eragitea eta bide bakoitza barre-algaraz betetako lasterketa bihurtzea

Bidi eta Andeka



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

	2						8	
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ZAILA

		3			7				6	
4							9		8	3
	7				2	3				5
6					4					
	5						2	6		7
			4	3		5				
	6			8		4	5	3		
			3	2	5					
5	4				3	7				9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



**Zelanda
taldearen
diskaren
zozketa**

Zelanda taldearen Zelanda diskoaren zozketa

Parte hartzeko: www.aiaraldea.eus atarian **Zozketa:** Abenduak 1, 12:00etan.

**QUICK PC
REPAIR**



Informatika argi eta erraz

**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

MUNDUKO KARRAMARRORIK ERTAINENA

Idazlea: Uxue Alberdi

Ilustratzailea: Ruth Juan

Adin tartea: 4-6 urte

Argitaletxea: Begiko

Karramarro harro asko dago arroketan. Itsasbeheran agertzen dira gehienak. Eguzkitara jartzen dira, disimuluan elkarri begira. GARRO karramarroa ere tartean da, bere lekua hartu gurarik, bere izaera aldarrikatu nahian...



MOKOTXIKI

Idazlea: Leire Bilbao

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Adin tartea: 4-6 urte

Argitaletxea: Txalaparta

Moko txikidun txori txikia hipopotamoaren bizkarrean bizi da. Hortik aurrera, irakurleak berehala identifikatuko du txikiaren eta handiaren garapena, ilustrazioak ikusi hutsarekin. Tamaina eta koloreen erabilera irizpide zorrotzez erabiltzen du ilustratzaileak marrazkiak irakurriaz bakarrik istorioa ulertu dadin.



JOLAS GUNEA

BOTXO

PARTAIDE KOPURUA:

Gutxienez bi

TOKIA:

Zuloa egin daiteken edozein lursail

AZALPENA


1. Jolas honetan jokalaria bakoitzak fruitu batzuk edukiko ditu (intxaurreak, urrak, poxpolinak, arbeletzeko hezurak...).

2. Jolasarekin hasi aurretik, botatzen lehena nor izango den aukeratu behar da. Horretarako, lurlean zulo bat egingo da (botxo). Jokalari guztiak pauso batzuetara dagoen marra batetik fruitu bana botxoan sartzen edo ahalik eta gertuen uzten saiatuko dira. Sartzen duena edo gertuen uzten duena lehena izango da botxora fruituak botatzen. Joko honi "puntutan" jolastea deritzo.

3. Jolasaren helburua botxoan ahalik eta fruitu gehien sartzea da. Lehen jokalaria beste jokalarien fruitu bana hartuko ditu eta fruitu horiek banan-banan, marra batetik, botxoan sartzen saiatuko da. Sartzen dituen fruitu guztiak berarentzat izango dira.

4. Hurrengo jokalaria botxotik kanpo geratu diren fruituak hartuko ditu eta marrik botxoan sartzen saiatuko da. Horrela jarraituko dute jokalaria guztiek fruitu guztiak botxoan sartzea lortu arte.

Beste aldaera batzuk ere badira. Berdintsu jolasten da, baina jokalaria bakoitzak fruitu guztiak batera botako ditu zuloan sartzeko asmoz. Horretarako, zuloatik gertu margotu behar da marra. Zeanurin bi marra margotzen zituzten: bat zuloatik (potxolea) 5 metrora eta bestea, txongolat izenekoa, 2 metrora. Lehenengo marra hasierako txandak erabakitzeke erabiltzen zen, eta bigarrena beste jokalarien fruitu guztiak batera zuloa botatzeko.



2023 NEGULEKUAK FAKTORIAN

09:30-13:30

1. TXANDA: Abenduaren 26tik 29ra
2. TXANDA: Urtarrilaren 2tik Sera

2020-2013
ARTEAN JAIKIAK



IZEN EMATEA:

www.labur.eus/negulekuakF2023

PREZIOA:

BAZKIDEAK:

1. TXANDA: 60€ 2. TXANDA: 100€

EZ-BAZKIDEAK:

1. TXANDA: 70€ 2. TXANDA: 120€



kokoriko@aiaraldea.eus

693 855 312 (Onintze)

Errotari kalea, 4-8 pabilioia 01400 LAUDIO (Araba)



Gauza bera da...

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu abiapuntua. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.




Z	I	A	F	O	R
O	E	M	E	K	U
R	O	S	E	N	I
I	P	U	R	U	D
O	R	E	O	I	K
N	O	A	U	H	A

H	U	N	Z	I
I	A	G	E	T
T	Z	I	Z	U
Z	P	I	K	A
A	N	T	L	A



Itzala

Lotu hosto bakoitzari bere itzala



SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera



Marcel Batista

JAIOTERRIA
HABANA (KUBA)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
FARMAKOLOGIA MASTERRA EGIN EHUN

“Kubatarrak oso ondo hartzen gaituzte Euskal Herrian”

Zerk ekarri zaitu Amurrion?

Farmakologia master bat egitera etorri naiz Euskal Herriara. Nire familiaren zati bat Amurrion bizi da, eta haiek izan dira nire ikasketen sustatzaileak nolabait. Horregatik eta Kubara etorri zen kuadrillatxo bat dudalako Amurrion ere (barreak).

Kuban medikuntza arloan egiten duzu lan.

Mediku gisa egiten dut lan Kuban bai: familia-medikuntzan eta anesthesiologian espezialista naiz. Kuban familia-medikuntzako espezializazioa gauzatzea derrigorrezkoa da medikuntza ikasketak behin bukatzerakoan. Horren ostean bigarren espezializazio bat aukeratu nuen.

Ospitale orokor kirurgiko batean egiten dut lan anestesista bezala, larrialdietan hain zuzen ere.

Garrantzia berezia du, beraz, ikasten ari zaren masterrak zure langintzan.

Anesthesiologiaren oinarria farmakologia da. Guk, nagusiki, zain barneko medikamentuekin egiten dugu lan. Medikazioaren gaineko kontrola behar-beharrezkoa da. Horrez gain, terapistak ere bagara, pazienteen gaixotasun kronikoak tratatzen ditugu, medio anestesiko bidez. Formakuntza horretan

sakontzeak erakarri ninduen Euskal Herriko Unibertsitatera.

Nola baloratzen dituzu ikasketen lehenengo asteak?

Oso gustora nago. Ikasle taldea oso jatorra da, eta unibertsitatearen maila zientifikoa oso altua iruditzen zait.

Ikasketa-eredua oso bestelakoa da hemen. Kubakoa askoz “tradicionalagoa” da nolabait esatearren; ezagutza garatzeko metodoa askoz praktikagoa da eta pazientearekin harremana estuagoa da. Euskal Herrian, praktikara jauzi egin aurretik, marko teorikoan gehiago sakontzen dela iruditzen zait. Edukiak modu azeleratuagoan lantzen dira, ordea.

Zure lehenengo aldia da Euskal Herrian. Zer da gehien gustatu zaiuzuna?

Gehien gustatu zaidana klima izan da. Oso herrialde epeletik dator, neguan hogeita hamazortzi gradu ditugu (barreak). Amurrionko bistak eta inguruko mendiak ere asko gustatu zaizkit. Harrera beroa jaso dut, oso ondo tratatu naute guztiek. Sentzazioa dut kubatarrak oso ondo hartuak garela hemen. Kubakoa nintzela esaten diedanean denek galdetzen didate bertako egotzaren inguruan; albistegietako informaziotik haratago gertuko testigantzak jaso nahi dituzte.

Elkarriketa osoa Aiaraldea. eus atarian ikusgai

KUBA



AZALERA

109.884 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

10,98 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Gaztelania

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea:publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea, 4-8 pabilioia

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00

Web-gunea: www.aiaraldea.eus

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea

Aldizkariak ez du bere gain hartzen

iritzi artikuluetan, zein egindako

elkarriketan adierazitakoaren

erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE

BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu

Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella,

Endika Arribas, Christian Alemany,

Gartzen Garaio, Aitor Fernandez,

Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi

Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde

Alberto Gutierrez, Eunat

Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



MERKA TUA

Abenduak
15-16-17-18

KOT
.eus

@kotnatura

Beste denboraldietako arropa erosteko urteko aukera bakarra

Graf!k Kooperatiba elkartean
Tejeria 2, Laudio